

# Emile Larre apezaren ehorzketa mezako predikua

Egun hemen biltzen gaituen Emile Larre apezak Bastidako auzoaldean sortu zen, handik Urdozeko elizan ibili mezan eta katiximan bai eta Urdozeko eskolan. Geroztik eskola ala eliza, biak hetsi dira, Baigorriko geltokia eta etxe andana bat bezala, ixtantean Baigorriko posta ederrari gertatuko zaion bezala, arrats guzietan telebistako predikuak aipatzen daukun kontsumismoa deitu erlisione berriko dogma handien izenean : *la croissance, le développement, la rentabilité, la postmodernité* eta nik dakita zer, denak hirietan metatzeko, horrek ekartzen duen airearen kutsadurarekin. Larrazkenean mundu guzitik bildu beharrak dira beren amentsetako lukainka aipatzeko : aire garbia.

Zer izan da Belarreko semearen amentsetako lukainka ? Emilek beste bide bat hartu du, zoriona bilatu du apezgoan. Gaizo mutikoa! Iduri eta apez batek jakin dezakeen zer den zoriona. Apeztu zen beste 27rekin 1951ean eta aprendizgoa egin Hazparnen. Bi urteren buruan igorri zuten Donibane Garazira laborantzako eskola berri bat sortzeko : Frantsesenea. Eskola Modernoa : geroztik lanbide eskoletan ala ingeniarienetan ohartu dira klaseetatik kanpo, egonaldiak egin behar direla lantegietan. Ordukotzat, Frantsesenek gazteak aldizka egoiten ziren eskolan eta laborari etxean. Artetik erraiteko, Iparraldeko laborantza lizeo guziak, Senpere, Hazparne, Donapaleu, Xibero ala Garazi Baigorrikoak, denak, Elizak sortuak ditu. Estatuak sortu duen laborantza lizeo bakar bat ez da. Elizakeria, apezkeria, zaharkeria eta beste, saltsa berean sartzen dituzten horiek balukete hor bi gogoeten gaia.

Eskola horien ondoan bazen Euskaldun Gazteria, bere GAZTE kaseta, gogoeta bilkura, lurraren besta eta gaineratikoekin. Hor ere sartua zen apez gaztea. Hazi horiek gabe ez zen gaur izanen ez ELB, ez Laborantza Ganbara, ez AOC, ez Lurrama, ez beste lorerik. Lehen hazia bota duena, Emile Larre.

Ebanjelioan ikusten dugu Jesus hain zela jendeen zorionaz arrangura non, Kanako ezteietan arnoa eman baitzien. Onetik eta ausarki. Ez zirelarik balurik ! Gazteen gogoaren argitzearekin, atseginaren alde hori ere landu du Emilek. Hasi zen pilotarekin Garazin berean. Urruñara joan zelarik, Hernadorena eta Monzonen ezagutza egin zuen, hauekin bertsolaritzan gustu hartu, Etxeberri ertorak akulatzen zuela . Ez zuen ahanztekoa, salak 300 toki izanki eta mila entzule jin zitzaizkien lehen saio hura. Hortarik gero, urte oroz « bertsularien eguna ». Auzoan baitzeukan Larzabal, biak antzerkiari lotu ziren, beti gazteekin. Euskal literaturaren hutsak apez gain emateko luma jorraia gisa erabiltzen duten euskaltzale handi horietan zeinek dauka Larzabalen hedaduratik ? Aurten oraino 800 ikusle bildu ditu garaztar zaharrek eman duten *Hila Espos*-ek.

1969an joan zen Aiherrarat eta hemen ere gazteak bildu bere inguruan. Segitu zuen pilota eta bertsuekin, gehituz dantza eta musa, bainan gorenean eman zuen kantua. Liturgiak hats berri bat hartzen ari eta irakurleak formatu zituen, 55 gazterekilako korala sortu. 55 gazte 613 herritar zeuzkan parropian ! Gazteak ikusten dituzue biltzen gaizo apez mokor baten inguruan ?

Hastean aipatu zorion hura gozatzen zuelako froga da. Kantika berriak ikasi zituzten auzoko beneditarrak lagun. Hain ziren untsa ari non Frantziako telebistak zabaldu baitzuen Aiherrako meza 1973an. Dizka bat ere atera zuten. Gaur emaiten ditugun kantiketan hogeita zenbaiten hitzak, Emilenak dira.

Behin Beloken sartuz geroz zangoa zepoan hartua zuen. Kontzilioko haize handiak ufatzen eta itzulpenetan ari zen talderat bildu zuten, Andiazabalen inguruan ari ziren apezek. Hamaika urtez ari izan ziren hortzez eta haginez, astelehen guziez, eta Euskal Herri miko huntan, prest ginen euskaraz hasteko, aise ahal gehiago zeukaten español eta frantsesen egun berean.

1969an beste lan bat eman zioten bizkarrean ; Abittu Burundirat joanik, haren tokia hartzea *HERRIA* kasetan, Lafitteren lagun. Aiherrako lanak bestalde bixtan dena eta gero Irisarrikoak.

34 urte eman du *Herrian*. Orduan zen ere Euskaltzaindian sartu. Artetik erraiteko, goratik bezala behatzen diote zenbaitek kaseta gaizo horri : 2000 ale saltzen ditu 60.000 euskaradun den tokian, bere ahal xumeekin. 10 aldiz gehiago euskaradun dauzkan Euskal Herrian zein da 10 aldiz gehiago, 20.000 ale saltzen dituen bestea ?

Bainan euskara hau eta euskara hura, pilota eta bertsu, ez ote gira apezgotik baztertu ? Batere ez ! Gazteen formakuntza errotik apez lana bada, nola ez liturgia bere kantika eta itzulpenekin ?

Eta euskaraz arranguratzea ez da politika egitea zenbaitek hala badiote ere. Oraixe entzun dugu Mendekosteko irakurgaia. Elizaren sortzearen ezaugarri handia izan da, bakotxak bere mintzairan ulertzen zuela Jesusen Berri Ona, mintzaira xumeanean ere. Zein Baigorriarrek entzun du noizbait Elamdarra deitu hizkuntza bat bazelakorik ? Elamdarra hor zen Mendekostez. Aldiz, garai haietan oraiko frantses edo españolaren pareko zen grekoa, ez da aipu ere.

Mendekosteko haritik du Elizak betidanik gain-gainetik misionestei gomendatu tokiko mintzairak ikastea Asian, Afrikan ala Ameriketean. Euskal Herria ez da gutiago Elizakoa. Botearen errefera hemen daukazue Baigorriin : Euskal Herri osoak ETBen ikusi du Dieudonné N'Dongala apez beltza meza euskaraz emaiten, ez baitzaio batere bitxi iduritu, zuriek hango mintzairak ikasi ditugun bezala, hark, beltzak, gurea ikastea hemen. Goresmenak Dieudonné ! Horren entzuteak ahalgea sortzen badio ere, ez da gorrituko. Betxak ez dira gorritzen.

Apez beltzak hemen ! Norat ari gira ? Leher egin behar ote du gure Elizak ? 75 urtetan erreter erretiroa hartu zuelarik ez zen pausurat joan Emile. Gogotik egonen zen herri ttipi zenbaitetan. Garazirat igorri zuten eta asteburu guziez meza nonbait segurtatu du 87 urteak arte.

Gaizo apeza ! Ez zakotena bakea emaiten ahal adin hortan, irakurtzen eta idazten goxa zadin? Ez baitzen obeditzeko ari norbaitek manaturik, bainan bere hautuz, eta geure hautuz egiten duguna zorion bide baita ! Hastean erran dut bere zorion amentsaren betetzea apezgoan duela bilatu. Eta kausitu, hoin betea izan den bizi luzean, ala gazteen argitzen eta ausatzen, ala liturgian, kantu eta itzulpenekin, ala bere azken urteetan beraz hari esker eliza gehiago idekirik ikusteko atsegina izan baitu. Errotik bide zuzenean zabilan. Frantziako apezpikuek biharko Eliza prestatzen dute, elizak gakatuz.

Beste musikaririk da Batikanoan, bai eta Afrika, Asia ala Ameriketean, Eliza goiti ari den tokietan. Huna zer irakurtu dutan berriki holako goresmenak egiten dizkieten Francisco Bergoglio kardinal batek erranik. Frantsesez uzten dut nehork ez dezan erran itzulpena ez dela ona: *Nos sociologues religieux nous disent que l'influence d'une paroisse s'étend sur un rayon de 600 mètres. A Buenos Aires, environ 2 km séparent chaque paroisse. J'ai alors dit aux prêtres : «Si vous le pouvez, louez un local, et si vous trouvez un laïc disponible, qu'il y aille ! Qu'il demeure auprès de ces gens, qu'il fasse un peu de catéchèse, et qu'il donne même la communion si on le lui demande.»*

Ez dakote erran : « Bi kilometro egiten dituzue futbol partida baten ikusteko, aski dituzue egitea mezarat joaiteko ere». Gainera komunionearen ematea gomendatzen zuen, eliza ere ez zen sala batetan ! Gusta litzaidake jakitea Frantziako apezpikuek zer dioten Aita Sainduaren erran horretaz.

Guk ez dugu hutsik den sala xekatzerik. Herri guzietan baditugu elizak. Zergatik gako ez eman ? Jenderik aski ez dela bilduko ? Bainan ostegun sainduko lehen meza hartan dotzena bat ziren lerro lerro eta ez ote dauku Jesusek berak errana, oraintxe entzun duguna, *Nere izenean bizpahiru biltzen direlarik, haien erdian nago*. Bizpahiru ? Ez gira hortan !

Eliza ez da eutanasiaren aldekoa ; Eliza ez dezagun guk hil. Eria artatzen da sendatzeko. Edo irauten laguntzeko. Ahal bezain goxoki, bortxatu gabe ; *Soins pallatifs* deitzen dute hori, arta eztiak. Bainan ez gira hiltorian. Errota itzulia egiten hasia delako seinaleak baditugu. 22 apezgai seminarioan, bakar bat zelarik duela 6 urte. Eskolako bi haur bataituak izan dira Hazparnen aurten, bedera Donamartiri eta Donostirin. Beste parropia eta urtetakoak bai eta jende helduak bestalde. Ez ote dira su berri baten lehen pindarrak. Ez, ez gira ehorzketeri buruz joanki.

Xipri Arbelbide